



**Josu
Landeta
Egurrola**

**Peru
Vidal
Gurrutxaga**



ESAERA ZAHARREKIN LOTZEN

Oraingoan, bertsolariek egoera bat deskribatuko digute bertso bakoitzean. Ea lotzen dugun egoera bakoitza pare-parera datorkion esaera zaharrarekin.

ESAERA ZAHARRAK

Tontoa izateko ez dago estudiatu beharrik
Asko izan eta gehiago nahi
Astoa, zaldiz jantzi arren, beti asto
A ze pare, karakola eta barea

Jon mendira badoa
Miren **berarekin**
bat jolasten hastean
bestea ere **berdin**
klaserako orduan
biek piper **egin**;
bi gazte hauek beti
daude **elkarrekin**!



Doinua:
Haizeak bidali du
Zortziko txikia

Esaera zaharra

Mobil berria, arropa onak,
astebete **Kanariasen**
gero negua datorrenean
elurretara **goazen**.
Horrelakoak sarri dabilta
pobre direla **kexatzen**.
Zer behar dute dutenarekin
konforme egon **daitezen**?



Doinua:
Ilun ikarak
azken argia
Zortziko handia

Esaera zaharra

Munduan asko daude
jakintsuen **pare**
guztiok garelako
garun baten **jabe**.
Asko ikas daiteke
landu **etengabe**
edo ergela izan
entrenatu **gabe**.



Doinua:
Realzaleok maite
Zortziko txikia

Esaera zaharra

Ispilu baten aurrean jarritz
ez gara egoten **gustura**
ez dugulako ikusten bertan
ikusi nahi dugun **hura**.
Barruko harra lasaitzen dugu
arropa-moden **kontura**
baina ez dugu ezer aldatzen
aldatuz soilik **itxura**.



Doinua:
Komeni zaigun
ixtoria bat l
Zortziko handia

Esaera zaharra